

# KULTURA DEMOKRATIKOA: GAZTEEN ARGAZKIAK

2011ko OTSAILA

Prensa Oharra

## Sarrera

Ikerketa honek, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea eta Gazteen Euskal Behatokiaren arteko elkarlanaren emaitza dena, otsailaren 9an aurkeztutako “Kultura Demokratikoa” lana garatu eta zabaltzen du. Kasu honetan, aztertutako unibertsoa 15 eta 29 urte bitarteko herritarrak dira (325.000 pertsona inguru). Landutako edukien ulermen maila hobetzeko lau adin tarte finkatu dira (15/17, 18/21, 22/25 eta 26/29 urte). Txostena sei ataletan banatu da: elkarrizketatuen egoera pertsonalaren balorazioa, gizarte-balio eta portaeren azterketa, jarrera politikoen definizioa, sozializazio prozesuen eta parte-hartze politikoen deskribapena, demokraziaren funtzionamenduaren hautematea, eta lurralde antolamendua eta Autonomia Estatutuaren inguruko iritziak.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsultatu daiteke. Lagina 15 eta 29 urte bitarteko herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.326 lagunek osatua da. Informazio bilketa 2010eko urriaren 28 eta azaroaren 12 bitartean egin zen.

## Emaitzak

### GIZARTE-BALIO ETA PORTAERAK

#### *Pozik, optimistak, mesfidatiak*

\* Orokorrean, euskal gazteak **pozik** agertzen dira egungo egoera pertsonalarekin (%75) eta **nahikoa optimista** (%64), euren etorkizun laboralarekin kezkatuak ere agertzen diren arren (%64). Bereziki euren harreman sarea baloratzen dute (familia, bikotekidea, lagunak), politika eta erlijioa, berriz, gazteen lehentasunen artean azken lekuetan kokatzen dira.

\* **Pertsonen arteko mesfidantza** maila adierazgarria azaltzen da: soilik herenak uste dute jende gehienarengan konfiantza izan daitekeela. Zentzu horretan, ez da harritzekoa hainbat taldeenganako aurreiritziak agertzea, auzokideekiko tolerantzia neurtu dugunean. Neonazien (%62) eta ETako kideenganako (%55) gehiengoan gaitzespena aurreikusi zitekeen, baina **ETAk mehatzatutako gainera aurreiritziak ere agertzen dira** (%51), arazoak ekiditeko jarrera baten adierazle diruditenak eta etika sozial moldakoiaren ondorio.

\* **Gizarte-balio eta portaeren onarpenari** dagokionez, egungo eztabaida diren gaien inguruan agertzen dira jarrera irekienak, batez ere, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren inguruan, eta –maila apalagoan– abortua, eutanasia edo helburu terapeutikoak dituen aldaketa genetikoaren inguruan. Jarrerak banatuago aurkitzen dira irakaskuntza erlijiosoaren, porroak erretzearen eta toki publikoetan alkoholaren gehiegizko kontsumoaren inguruan. Azkenik, gaitzespen nabariena jarrera antisozialek jasotzen dute (biolentziaren erabilera, lapurreta, autoritateari aurre egitea, gaeuz kalean zarata egitea), eta heriotza-zigorrek eta bikotekideari fidela ez izateak.

## ETAren TERRORISMOA

### *Gehiengoan gaitzespena, gutxiengo setatia*

\* **ETAren terrorismoaren gaineko iritziei dagokionez**, nabarmentzekoa da, lehenik, herena direla galderari erantzuten ez diotenak edo ez ados ez kontra agertzen direnak, planteatutako aukera edozein dela ere. Jarrera hau, batez ere, iheskorra da, datuaren trinkotasunak berak adierazten duen moduan. Haatik, 10etik 6 inguruk zeharbiderik hartu gabe adierazten dute ETArekiko gaitzespena eta “*ekintza terrorista guztien biktimek gure laguntza eta babesa merezi dutenaren*” elkartasunezko baieztapenaren aurrean %71 ados agertu dira. Era berean, giza eskubideen gaineko errespetuzko jarrera mantentzen da, baita ETAko kideena ere (%55). **%10 inguruk osatzen duten gutxiengo batek, biolentzia terroristari nolabaiteko justifikazioa ematen diote, nahiz eta, hauen artean ere, erdiek ez dute uste ETAren ekintzak onak direnik Euskadirentzat.**

## SOZIALIZAZIO ETA PARTE HARTZE POLITIKOA

### *Mesfidantza eta sistema demokratikoarekiko atxikimendua*

\* **Politikari** dagokionez, konfiantzarik eza nagusitzen da (batez ere, helduenen artean), asperdura (batez ere, gazteenen artean), eta axolagabekeria. Gutxiengoa dira interesa agertu dutenak (%17), eta are gutxiagok konpromisoa (%10). Berriz ere, haatik, mesfidantza hori orokorrean politikari baino politikan aritzen direnei (%77 dira *boterean bat edo bestea egon, beti euren interes pertsonalak bilatzen dituztenaren* adierazpenarekin ados agertu dira), eta alderdi politikoei (%71 *alderdi politiko guztiak berdinak* direla uste dute) zuzendutakoa da. Halere, %53k jarrera iheskorra mantentzen duten arren (*hobe da politikan ez sartzea*), antzeko kopuruak adierazten dute *politikak eragin handia duela edozein herritarren bizitzan* (%56). Era berean, gehiengoak onartzen dute *badirela herritarren interes orokorrekin arduratzen diren politikariak* (%54) edo *alderdiak beharrekoak direla talde eta klase sozial desberdinen interesak defendatzeko* (%59).

\* **Ezker-eskuin eskalan** auto-kokapenean, non 0k ezker muturra eta 10k eskuin muturra esan nahi duen, batez besteko puntuazioak ezkereranzko joera moderatua adierazten du (4,2). Aldiz, **nazionalismoaren eskalak**, non 0k batere nazionalista ez eta 10k oso nazionalista esan nahi duen, batez bestekoak nazionalismoaren alderako joera arina erakusten du (5,3).

\* **Sistema demokratikoarekiko atxikimendua** da joera nagusia, %70k nahiago dute demokrazia beste edozein gobernu mota baino. Hauen parean, %14k adierazi dute berdina zaiela, eta gutxiengo %5k, baldintza batzuetan, gobernu autoritarioa onartuko luketela.

\* Deigarria da egonkortutako sistema demokratikoan hezitako belaunaldiak **politizazio goiztiar eskasa** erakustea, eurak baino helduagoak direnen antzekoa: soilik %10 oroitzen dira haurrak edo nerabeak zirenean etxean politikaz *askotan* hitz egiten zenik, eta hauek *noizean behin* hitz egiten zutenei gehituta, gazteen herena inguru baino ez dira. Gutxienez, hori bai, etxean politikaz *inoiz edo ia inoiz ez* zela hitz egiten dioten portzentajea 10 puntu txikiagoa da (%32) 29 urtetik gorakoekin alderatuta.

\* Antzeko baloreak ditugu ere **heldutasunean** politikaren ezkatze horri dagokionez, gizartean txertatuta dagoen ereduarekin koherenteak diren datuetan adierazia, berriz ere. Erdiak baino gehiagok ez dute *inoiz edo ia inoiz ez* politikaz hitz egiten, ez familia giroan, ez lagunekin, eta ez –batez ere– lan edo ikasketa munduan. Bestalde, %41k *noizean behin* edo *askotan* hitz egiten du familian, %36k lagunekin eta %26k lankideekin edo ikaskideekin. Aipatzen diren arrazoiak, berriz ere, interes-eza eta gatazkak ekiditea dira.

\* 29 urtetik gorako pertsonekin alderatuta, interes-ezaren eta hedabideetan **informazio politikoaren** jarraipen aktiboaren arteko kontrastea txikiagoa da. %45k adierazi dute informazio politikoa *egunero* jarraitzen dutela komunikabide erabilienean, *telebistan*, 4tik 1ek apenas egiten duen bitartean. Eguneroko *pentasa idatzia*ren

jarraipena %20raino txikitzen da, eta *irratia*rena %15eraino. Internet bidezko informazioaren ohiko jarraipena soilik da altuagoa gazteen artean 29 urtetik gorakoen artean baino (%18 %13aren parean). Modu honetara, nabarmena izanik, alderaketa egin ezker, politikarekiko urruntze publikoaz gain, urruntze hori jarrera indibidualetan ere ematen dela, datu hauek, ziurrenik, hedabideetara gerturatzeko moduan aldaketa ematen ari dela azaleratzen dute ere: ez dira maiztasun berarekin erabiltzen eta ezta gauza berdinetarako.

\* **Parte-hartze politikoa**, txikia den arren, ez da 29 urtetik gorakoena baino txikiagoa, gazteen politikarekiko urruntzearen testuinguruan izangatik ere. Bat datoz parte-hartze mailarik altuena jaso duten ekintzetan, *grebak* (%26) eta *manifestazioak* (%21), ordena aldatuta bada ere, gainera kontutan hartzekoa da lan-mundukoekin alderatuta ikasle-grebak ezberdinak direla eta hauek, adinagatik, talde honetan gehiago ematen direla. Parte hartzeko beste moldeen artean, batez bestekoaren gainetik ematen dira arrazoi politikoengatik zenbait produktu erostea edo boikoteatzea parte-hartzearen adierazpen moduan. Gainerakoetan ia ez dago alderik. Azkenik, azken urtean erdiak baino gehiagok inolako ekintzetan parte hartu ez izana parte-hartze ahularen adierazle da ere.

\* **Talde eta elkarteetako kideztari eta partaidetzari** dagokionez, kirol, gazte edo aisialdiko taldeetan salbu, gainerakoetan 10etik ia 9k ez dute parte hartzen. Are gehiago, egun edo iraganean parte-hartze altua soilik kirol taldeetan ematen dela esan dezakegu, kultur edo aisialdiko elkarteetan parte-hartze eza %70era iristen baita, eta ikasle taldeetakoa %82ra igotzen da. Azken finean, datuek erakusten dute parte-hartze kolektiboaren praktika oso txikia dela, nahiz eta nolabaiteko parte-hartzea duten elkarte edo talde horietan, parte-hartze maila Espainiako batez bestekoaren gainetik dagoen.

\* 29 urtetik gorakoen artean gertatzen den bezala, soilik 10etik 4k diote *jende guztiarekin* politikaz hitz egiteko libre sentitzen direla (%44), dena den gutxiengoa dira ere *ia inorekin* hitz egiteko libre sentitzen ez direla diotenak (%12). Halere, belaunaldi-aldaketak ere ez du ahalbidetzen politikaz hitz egiteko *soilik pertsona batzuekin* libre sentitzen direnen kopurua txikitzea (%37), eta datu horrek euskal gizartean orokorregia den demokraziaren funtzionamenduaren arazo bat islatzen du. Haatik, *jende guztiarekin politikaz hitz egiteko libre sentitzen den* pertsona kopurua azken bi urteetan 14 puntu handitu da (%30 ziren 2008an, %44 2010ean).

## DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUA

### *Demokraziaren funtzionamenduarekiko poztasun-eza moderatua*

\* **Demokraziaren funtzionamenduarekiko** jarrera kritiko moderatua agerian geratzen da gazteek Euskadi eta Espainiako demokraziari gaintu eskasa ematen diotenean (5,3 bi kasuetan), eta demokraziaren funtzionamenduarekiko poztasunean gazteak bi erditan banatuta agertzen direnean, pozik ez daudela diotenak (%47) pozik daudela diotenak (%41) baino apur bat gehiago direlarik, batez ere adin tarte nagusienetan.

\* Garrantzia gehien ematen zaien **giza-eskubideei** dagokionez (hiru erantzun aukera), gazteen berezitasuna da *iritzi eta adierazpen askatasunerako eskubidea* (%57) gehiagotan aipatzea, horren atzetik *lanerako eskubidea* (%49) eta *bizitzeko eskubidea*, ideia politikoak direnak direla, (%45) dira gehien aipatzen dituztenak. Hurrenkera aldaketa hau gazteen izaera propioekin lotuta ematen da, halere, gehien aipatu dituzten aukerak ez dira biztanleria orokorrak aipatzen dituztenen oso ezberdinak. Erantzun kopuru handiak jaso dituzte ere *bezkuntzarako eskubideak* (%38), *etxebizitza duinerako eskubideak* (%36) eta *osasunerako eskubideak* (%35).

\* **Giza eskubideen betetzearekiko poztasunari** dagokionez, lantzen ari garen taldearen ezaugarriak kontutan hartuta, nabarmentzekoa da *bezkuntzarako eskubidearekin* %80 oso edo nahikoa pozik agertu direla; eta maila berean *osasunerako eskubidearekin*. Datu horiek, ziurrekin, Ongizate Estatuan orokortuago dauden bi konkistekiko identifikazioa islatzen dute: hezkuntza eta osasun publikoa. *Lanerako* eta *etxebizitza duinerako eskubideekin* salbu, zeinekin gazteak kritikoago azaltzen diren eta erdiak baino gehiagok ez oso pozik edo batere

pozik ez agertzen diren, orokorrean poztasuna da nagusi, Euskadi eta Espainiako demokraziaren funtzionamenduari ematen dioten gaingaitu eskasarekin kontrastean.

\* **Erakunde politiko**en gailentasunari eta elkarriketatuen ongizate familiar eta pertsonalean duten eraginari dagokionez, gazteak ez dira aldentzen iritzi orokorretik eta *Eusko Jaurlaritz*a aipatzen dute erdiak baino gehiagok, ondoren *Udalak* eta *Gobernu Zentr*ala. *Diputazioak*, berriz, 29 urtetik gorako arteen baino are desitxuratuago agertzen dira, eta gazteek ez dute hautematen *Europako Batasuna* ere euren eguneroko bizitzarako erakunde garrantzitsu moduan.

## LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA AUTONOMIA ESTATUTUA

***Gehiengoa aukera autonomisten aldekoa, eta autogobernu mailarekin poztasun gehiago poztasun-eza baino***

\* Estatutua eta autogobernu maila baloratzerako garaian, *pozik* agertu direnak (%23) *pozik* agertu ez direnak (%15) baino gehiago dira, eta %34k adierazi dute *neurri batean* daudela pozik. Nahiz eta 29 urtetik gorakoekin alderatuz gero pozik daudenen kopurua apur bat txikiagoa den, ez dira gehiago pozik ez daudenak, erantzun ez dutenak baizik. Autogobernu mailari buruzko iritziak eta etorkizuneko aukerek argazkia osatzen dute: %25 pozik dago Estatutuarekin, horietatik gehienak *bere transferentziak osatu behar direla* (%14) dioten arren. Bestalde, %18k *Estatutua erreformatu beharko litzatekeela* irizten diote: %11k *autogobernu gehiagorekin* eta %7k *Euskadi estatu federal bat* izan beharko litzatekeela Espainiaren barruan aipatuz. Nabarmentzekoa, berriz ere, herenak galderari ez dakiela zer erantzun edo ez duela erantzun nahi esan izana.

\* Estatuaren antolaketari buruz galdetu dugunean, iritziak antzeko norabidea hartu dute. Erantzun kopuru handienak *Autonomia Estatuaren defentsak* jaso ditu (%36), horiekin batera esanguratsua den %15k *Estatu federalaren* aldeko hautua egiten dute, egungoa baino eredu deszentralizatuagoaren aldekoa. Halaber, 4 gazteetatik 1ek nazionalitateetarako *independentziaren aukera onartzea* eskatzen du, eta gutxiengo dira, soilik %3, *Estatuaren eredu berzentralizatzea* eskatzen dutenak. Kasu honetan, galderari erantzun ez diotenak gutxixeago dira (%23), batez ere, adin tartetan gora egiten dugularik (26-29 urte bitarteko arteen %17 dira).

**Bilbo, 2011ko otsailak 25**